



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

MAMMA MIA! musikal txalotua izango da udako eta Aste Nagusiko plater nagusia Arriaga Antzokian

- Ikuskizuna *Mamma Mia!* musikalaren ekoizpen berri bat da, Bilbon ikusi ez duguna, eta hiru denboraldi daramatza sekulako arrakasta izaten Madrilgo Gran Vían, non 800.000 pertsonatik gora liluratuta utzi dituen.
- Arriaga Antzokiak 45 emanaldi eskainiko ditu abuztuaren 14tik, estreinaldiaren egunetik, irailaren 21era, eta sarrerak gaur bertan jarriko dira salgai, martxoaren 26an, 17:00etatik aurrera.

Bilbo, 2025eko martxoaren 26a.- Arriaga Antzokiak, berriz ere, ikuskizun musikal handi bat eskainiko du uda honetan. Abuztuaren 14tik, ostegunetik, irailaren 21era, igandera, *Mamma Mia!* izango dugu Bilbon, Suediako **ABBA** talde ahaztezinaren musika duen musikal handia. Ikuskizun zirrargarri eta hunkigarri hau ez da Bilbora izenburu berberarekin beste batzuetan etorri dena, beste muntaketa bat da, eta bost aste pasatxo izango da ikusgai Arriaga Antzokian, Aste Nagusia barne hartuta.

Mamma Mia! musikalaren ekoizpen berriak eszenografia, jantzi eta koreografia originalak ditu, baita letra eta moldaketa musikal berrituak ere. Musikalak 800.000 ikusle baino gehiago utzi ditu liluratuta Madrilgo Gran Vían arrakasta handia izan duten hiru denboralditan, non egun bakoitza zinezko festa bat den. Ikuskizuna ABBAren 23 abesti arrakastatsuenetan oinarritua dago eta hortaz "Dancing Queen", "Gimme Gimme Gimme", "Chiquitita", "The Winner Takes It All", "Voulez Vous", "S.O.S", "Super Trouper" edo "Thank you for the music" entzun ahalko dira, besteak beste. Horrela, *Mamma Mia!* komedia musikalean, inork ezin dio eutsi abesteko, dantzatzeko eta hunkitzeko bulkadari. Horrez gain, musikalak kontatzen duen istorioa amei eta alabei, maitasunari eta lagun zaharrei egindako omenaldi bat da. Hori dela eta, musikala adin eta publiko mota guztientzat da aproposa, bikotekidearekin, lagunekin edo senideekin gozatzeko modukoa.

Ikuskizun hau ATG Entertainment-en produkzio bat da, SOM Produce barne hartu duen taldea. SOM Arriaga Antzokian arrakasta izan duten beste musikal batzuek arduratu da, hala nola *Priscilla Reina del Desierto*, *West Side Story* eta *Chicago*. Proposamenaren kalitateari eta publikoaren konfiantzari esker, Antzerki Musikalaren Sariatik Koreografia Onenaren saria jaso du, besteak beste.

Sinopsia

Donna ama ezkongabe eta independente bat da, zeinak hotel txiki bat baitu Greziako uharte idiliko batean. Bakarrik hezi du bere alaba Sophie, zeina laster ezkontzeko baita. Inork jakin gabe, Sophie amaren egunerokoa irakurtzen du eta hiru maitalerekin topo egiten du: hiru aita posible! Ziurgabetasun horrekin amaitzeko, hiruak ezkontzara gonbidatzea erabaki du. Kaosa bermatuta dago Donnaren aspaldiko lagun onenak

agertzen direnean. Berriz elkartzen direnean, bai barrea, bai zirrara eragingo digute, maila berean.

Oholtza gainean, Donnak, Taniak, Rossiek, Sophiek, Skyk, "hiru aita posibleek" eta antzeztaldeko 27 kideek musikal batean inoiz azaldu den istorio dibertigarriena eta maitagarriena kontatuko digute.

Egundoko musikala

Londresen estreinatu zenetik 25 urte igaro diren arren, *Mamma Mia!* antzerkian inoiz ikusi den fenomeno handienetako bat da oraindik ere. 15 hizkuntza baino gehiagotara itzuli da eta 70 milioi ikusle baino gehiagok txalotu dute mundu osoan. Zinemara ere eramán zuten, eta filmaren arrakasta egundokoa izan zen. Espainiar Estatuan ere arrakasta handia izan du musikalak, 2004an estreinatu zenetik, eta 20 urte daramatza hiru produkzio desberdinekin arrakasta izaten. Orain, *Mamma Mia!*ren produkzio berri honi esker, Bilbo Greziako uharte idilikora joango da berriro ere, urteko ezkontzara joateko, pertsonaiekin maitemintzeko eta euren energia positiboarekin kutsatzeko. Uda honetan, Arriaga Antzokia festa zoragarri baten epizentro bihurtuko da.

Sarrerak salgai arratsalde honetan bertan

Sarrerak gaur jarriko dira salgai, martxoaren 26an, asteazkenean, 17:00etan, ohiko salmentarako kanalen bidez: www.teatroarriaga.eus webgunean edo antzokiko txarteldegietan, alde zurreko salmenta ordutegian. Musikal honetarako finkatutako prezioak 30 eta 69 euro bitartekoak dira, eta hainbat aukera daude, egunaren eta deskontuen arabera.

MAMMA MIA! EL MUSICAL

Musika eta letrak: **BENNY ANDERSSON & BJÖRN ULVAEUS**
STIG ANDERSONEN LANKIDETZAREKIN

JATORRIZKO LIBRETOA: **CATHERINE JOHNSON**
JUDY CRAYMERen IDEIA BATEAN OINARRITUTA

Moldaketa: **David Serrano**

Zuzendaritza: **Juan Carlos Fisher**

Koreografiak: **Iker Karrera**

Jantzien diseinua: **Gabriela Salaverri**

Eszenografiaren diseinua: **Ricardo Sánchez-Cuerda**

Argiztapenaren diseinua: **Felipe Ramos**

Soinuaren diseinua: **Gastón Briski**

Karakterizazioaren diseinua: **Chema Noci**

Musika-zuzendaritza: **Joan Miquel Pérez.**

Produkzio teknikoa: **Guillermo Cuenca**

Buru teknikoa: **Gonzalo Martínez Alpuente**

Produkzio artistikoaren zuzendaritza: **Carmen Márquez**

Zuzendari laguntzailea: **Rómulo Assereto**

Itzulpena eta abestien moldaketa:

Alejandro Serrano eta David Serrano

Produktore exekutiboak: **Marcos Cámara eta Juanjo Rivero**

Produktoreak: **Pilar Gutiérrez, Marcos Cámara eta Juanjo Rivero**

Produkzioa: **ATG Entertainment**

ARRIAGA ANTZOKIA - Emanaldien egutegia

ABUZTUA

OSTEGUNA	14	19:30	ESTREINALDI OFIZIALA
OSTIRALA	15	17:00 eta 21:00	
IGANDEA	17	17:00 eta 21:15	
ASTEARTEA	19	19:30	
ASTEAZKENA	20	19:30	
OSTEGUNA	21	19:30	
OSTIRALA	22	17:00 eta 21:15	
LARUNBATA	23	17:00 eta 21:15	
IGANDEA	24	17:00	
ASTEARTEA	26	19:30	
ASTEAZKENA	27	19:30	
OSTEGUNA	28	19:30	
OSTIRALA	29	17:00 eta 21:00	
LARUNBATA	30	17:00 eta 21:00	
IGANDEA	31	17:00	

IRAILA

ASTEARTEA	2	19:30	
ASTEAZKENA	3	19:30	
OSTEGUNA	4	19:30	
OSTIRALA	5	17:00 eta 21:00	
LARUNBATA	6	17:00 eta 21:00	
IGANDEA	7	17:00	
ASTEARTEA	9	19:30	
ASTEAZKENA	10	19:30	
OSTEGUNA	11	19:30	
OSTIRALA	12	17:00 eta 21:00	
LARUNBATA	13	17:00 eta 21:00	
IGANDEA	14	17:00	
ASTEARTEA	16	19:30	
ASTEAZKENA	17	19:30	
OSTEGUNA	18	19:30	
OSTIRALA	19	17:00 eta 21:00	
LARUNBATA	20	17:00 eta 21:00	
IGANDEA	21	17:00	

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus